

III. ERANSKINA

HITZARMENA, EUSKO JAURLARITZAREN ONGIZATE, GAZTERIA ETA ERRONKA DEMOGRAFIKOAREN SAILAREN ETA EAEKO UDALERRIKO UDALAREN («UDALA»), EAEKO TOKIKO ORGANISMO AUTONOMOAREN («ORGANISMO AUTONOMOA») EDO EAEKO TOKIKO MERKATARITZA-SOZietateAREN («TOKIKO MERKATARITZA-SOZietATEA») ARTEKOA, IMMIGRAZIOAREN ETA KULTURARTEKO BIZIKIDETZAREN ARLOKO JARDUERAK GARATZEKO 2025EAN

Vitoria-Gasteiz, 2025eko.....aren.....(a).

BATU DIRA:

Batetik, Nerea Melgosa Vega andrea, Ongizate, Gazteria eta Erronka Demografikoaren sailburua, Lehendakariaren 2024ko ekainaren 24ko 29/2024 Dekretuaren bidez izendatua, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren izenean eta hura ordezkatzuz, Jaurlearitzari buruzko ekainaren 30eko 7/1981 Legearen 26. artikulua emandako ahalmenarekin bat etorritik.

Bestetik, «udalerriko» alkatea, «tokiko organismo autonomoko» presidentea edo «tokiko merkataritza-sozietateko» presidentea, XXk egindako izendapenaren arabera, eta XXk hitzarmen hau sinatzeko baimendua.

Alderdiek Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren eta «udalerriko» Udalaren, «organismo autonomoaren» edo «tokiko merkataritza-sozietatearen» izenean eta haiek ordezkatzuz esku hartzen dute, lege ezarritako dituzten eskumenak erabiliz, eta elkarri aitortzen diote hitzarmen honen bidez betebeharrak hartzeko legitimotasun eta gaitasun nahikoa dutela, bertan jasotzen den moduan, eta, horrela, honako hau

ADIERAZTEN DUTE:

Lehenengoa.– Ongizate, Gazteria eta Erronka Demografikoaren sailburuaren 2025eko ekainaren 18ko Aginduen bidez, (EHAA 126 2025eko uztailaren 4koa), deialdia egin zitzaizen EAEko udalei, tokiko organismo autonomoei eta tokiko merkataritza-sozietateei, 2025ean immigrazioaren eta kulturarteko bizikidetzaren arloko jarduerak garatzeko dirulaguntza jasotzeko eskaera aurkeztu zezaten.

Bigarrena.– «Udalerriko» Udalak, «tokiko organismo autonomoak» edo «tokiko merkataritza-sozietateak» aurkeztu du eskaera, eta aurreko apartatua adierazitako aginduko baldintzak betetzen ditu.

Hirugarrena.– Ongizate, Gazteria eta Erronka Demografikoaren Sailak, aipatutako aginduan adierazitakoaren arabera, onartu egin du «udalerriko» Udalaren, «tokiko organismo autonomoaren» edo «tokiko merkataritza-sozietatearen» eskaera, eta hitzarmen hau onartzen du, betiere honako klausula hauek oinarri izanda:

KLAUSULAK

Lehenengoa.– Lege-esparrua.

Hitzarmen honetan jasotzen diren baldintzak Ongizate, Gazteria eta Erronka Demografikoaren sailburuaren 2025eko ekainaren 18ko Aginduan (EHAA 126, 2025eko uztailaren 4koa) jasotakoak dira. Bertan, oinarriak onartzen dira EAEko toki-entitateei, tokiko organismo autonomoei eta tokiko merkataritza-sozietateei dirulaguntzak emateko. Dirulaguntza horiek immigrazio-teknikariak kontratatzen jarraitzeko dira, eta baita immigrazioaren eta kulturarteko bizikidetzaren arloko jarduerak garatzeko ere. Deialdia 2025ean egin da.

Bigarrena.– Xedea.

Hitzarmen honen xedea dirulaguntza bideratzea da, hain zuzen ere 2025eko urtarrilaren 1etik abenduaren 31ra immigrazioaren eta kulturarteko bizikidetzaren arloan jarduerak egiteko edo gauzatzeko dirulaguntza.

Hirugarrena.– Gauzatu beharreko ekintzak.

Gauzatu beharreko ekintzek bat etorri behar dute dirulaguntza emateko xedearekin, bai eta egindako eskaeraren oinarriarekin ere. Horrez gain, hitzarmena sinatu aurretik jaso beharko dira xedeok, dirulaguntza emateko ebazpenean, aipatutako aginduaren 4.5 artikuluan adierazitakoaren arabera.

Edozein kasutan, ekintzok, Herritartasunaren, Immigrazioaren eta Asiloaren Kulturarteko VI. Planaren testuinguruan eta Migrazioarako Euskal Itun Sozialarekin bat, Euskal Autonomia Erkidegoan bizi diren etorkinei egongo dira zuzenduak: haiek izango dira zuzeneko hartzaileak.

Laugarrena.– Entitate hartzaileak.

Dirulaguntzaren zuzeneko hartzailea da: EAEko Udala, EAEko tokiko organismo autonomoa edo EAEko tokikomerkataritza-sozietatea.

Bosgarrena.– Alderdien ekarpenak.

Helburuak betetzeko eta proiektatutako ekintzak egiteko, alderdi sinatzaileek honako ekarpen eta konpromiso hauek adostu dituzte:

1.– «Udalerriko» Udal, «tokiko organismo autonomo» edo «tokiko merkataritza-sozietate» sinatzailearen aldetik:

Ekarpenak:

- a) Gaitasun ekonomiko nahikoa izatea, une oro bermatzeko proiektuaren bideragarritasuna.
- b) Proiektuaren aurrekontua (diru-sarrerak eta gastuak).
- c) Proiektua burutu ahal izateko giza baliabideak eta baliabide materialak.

Konpromisoak:

- a) Ongizate, Gazteria eta Erronka Demografikoaren Sailak emandako dirulaguntza immigrazioaren eta kulturarteko bizikidetzaren arloko ekintzak gauzatzeko erabiltzea.
- b) Eskatzen denean, Jarraipen Batzordeari informazioa ematea, dirulaguntza ematen den proiektuaren garapenari buruz.

2.– Ongizate, Gazteria eta Erronka Demografikoaren Sailaren aldetik:

a) Ekarpen ekonomikoak:

«Udalerriko» Udal, tokiko organismo autonomo, tokiko merkataritza-sozietate» sinatzaileari ematea....aren...(e)ko Ebazpenaren arabera (EHAA.... (zenbakia), 2025eko....aren...(e)koa), «euroko» dirulaguntza, laguntza kontzeptuarekin, 2025ean immigrazioaren eta kulturarteko bizikidetzaren arloko ekintzak gauzatzeko kostuak finantzatzeko.

Horretarako, aurrekontu-arloko neurriak aktibatu dira, eta dagokion aurrekontu-partida jaso da Euskal Autonomia Erkidegoko 2025. urteko Aurrekontu Orokorrak onartzen dituen abenduaren 20ko 8/2024 Legean:

Immigrazio eta kulturarteko bizikidetzaren arloko ekintzak gauzatzeko dirulaguntza:
2025 1001123000 4 1.31220.42100 2025/000360

2025eko ordainketa-kreditua – 595.000,00 euro.

2026ko konpromiso-kreditua – 255.000,00 euro.

Jarraipen Batzorde bat sortuko da, dirulaguntzaren erabileraren jarraipena egiteko. Hori dela eta, Etorkinen Harrera eta Integrazioko Zuzendaritzak dirulaguntza emateko ebazpenean aldaketak egiteko prozeduraren bat hasiz gero, horren berri eman beharko zaio Jarraipen Batzordeari.

Seigarrena.– Dirulaguntza ordaintzeko epeak.

Ongizate, Gazteria eta Erronka Demografikoaren Sailak honako epe hauetan egingo du aurreko klausulan adierazitako ordainketa:

1.– Lehen ordainketa, «euro» eurokoa, hitzarmen hau sinatu ostean, eta 2025eko abenduaren 31 baino lehenago diruz lagundutako ekintzen % 70 justifikatu ostean.

2.– Bigarren ordainketa, «euro» eurokoa, gainontzeko % 30a, 2026an ordainduko da, gainontzeko ekintzak 2026ko martxoaren 31 baino lehen justifikatu ostean.

Zazpigarrena.– Datu-babesa.

Alderdi sinatzaileek honako hauetan jasotako aurreikuspenak betetzeko konpromisoa hartzen dute: 2016/679 (EB) Erregelamendua, Europako Parlamentuarena eta Kontseiluarena, 2016ko apirilaren 27koa, Datu pertsonalen tratamenduari dagokionez pertsona fisikoen babesari eta datu horien zirkulazio askeari buruzko arauak ezartzen dituen, eta 95/46/EE Zuzentaraua (Datuak Babesteko Erregelamendua) indargabetzen duena; 3/2018 Lege Organikoa, abenduaren 5koa, Datu Pertsonalak Babesteko eta Eskubide Digitalak Bermatzeko; eta arlo honetan bat datorren gainerako araudi aplikagarria.

Alderdiek hitzarmenaren garapenean eta aplikazioan biltzen edo lortzen dituzten datu pertsonalak indarrean dagoen araudiaren arabera tratatu eta erabiliko dira.

Zortzigarrena.– Ez betetzeak eta itzulketa-prozedura.

«Udalerriko» Udalak, «tokiko organismo autonomoak», «tokiko merkataritza-sozietateak» ez baldin badu dirulaguntza eskatutako eta emandako xede espezifikorako erabiltzen, ez baldin badu dirulaguntzaren xede den ekintza egiten, ez baldin badu helburu zehatzetarako erabili izana justifikatzen, edo, oro har, ez baldin baditu betetzen 2025eko ekainaren 18ko Aginduan jasotakoak, Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzeko abenduaren 21eko 20/2023 Legearen 36. artikuluan jasotakoak edo hitzarmen honetan jasotakoak, emandako eta jasotako kantitatea itzuli beharko du, eta baita dagozkion interes legalak ere, betiere Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzeko abenduaren 21eko 20/2023 Legearen 40. artikuluan eta Euskal Autonomia Erkidegoaren Aurrekontu Orokorraren kontura ematen diren dirulaguntzen bermeei eta horiek itzultzeari buruzko erregimen orokorra arautzen duen eta horien kudeaketan parte hartzen duten erakunde laguntzaileek bete beharreko baldintzak, erregimena eta eginbeharrak ezartzen dituen abenduaren 17ko 689/1991 Dekretuan ezarritako prozeduraren arabera.

Aipatutako kantitateak diru-sarrera publikotzat hartuko dira legezko ondorio guztietarako.

Bederatzigarrena.– Hitzarmenaren indarraldia.

Hitzarmen hau alderdien adostasunarekin burutuko da, eta sinatzen den egunean jarriko da indarrean. Indarraldia 2025eko abenduaren 31ra artekoa izango du. Hala ere, 2025eko urtarrilaren 1etik aurrerako ekintza guztiak hartuko ditu eraginpean.

Hitzarmen hau, bukatu ondoren, ezin izango da luzatu.

Hamargarrena.– Izaera juridikoa.

Hitzarmen hau emandako laguntza ekonomikoa bideratzeko tresna gisa formalizatzen da, etorkinen integrazioa sustatzeko immigrazioaren eta kulturarteko bizikidetzaren arloko ekintzak eginez. Hori dela eta, hitzarmen honen administrazio-izaera kontuan izanda, alderdiek adostutakoaren arabera arautuko da, eta, betiere, zalantzak argitzeko, 20/2023 Legea, abenduaren 21koa, Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzeko eta dirulaguntzen arloko araudia erabiliko da. Horrez gain, haren araubide juridikoa Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 47. artikulutik 53. artikulura bitartean araututa dago, eta Sektore Publikoko Kontratuen azaroaren 8ko 9/2017 Legearen aplikazio-eremutik kanpo egongo da.

Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioak jurisdikzio eskudun gisa jardungo du hitzarmen honen interpretazioan eta aplikazioan Jarraipen Batzordean ebatzi ezin diren eztabaidak ebazteko, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legean ezarritakoaren arabera.

Eta hitzartutakoarekin bat datozela frogatzeko, alderdiek jatorrizko agiri elektroniko bakarrean sinatzen dute hitzarmen hau. Formalizazio-data azken sinaduraren data izango da, Nerea Melgosa Vega andrearena, Ongizate, Gazteria eta Erronka Demografikoaren sailburuarena, hain zuzen ere.

Ongizate, Gazteria eta Erronka Demografikoaren sailburua,
NEREA MELGOSA VEGA.

«Udaleko» Alkatea.

«Tokiko organismo autonomoko» presidentea.

«Tokiko merkataritza-sozietateko» presidentea.